

LUAI: Kotxe elektrikoaren kargadoreen enpresa berritzailea

Luai, Oiartzoko ikastolako lau ikasleek sortutako enpresa da: Leire, Aitzol, Unai eta Ibon gara. Gizartean zeuden beharrei erreparatzean, zenbait arazorekin topatu ginen eta horien artean honako honi aurre egiteko motibazioa aurkitu genuen: mundua oso kaltetua dago kontaminazioarekin eta horren eragile nagusietako bat kotxeek isurtzen dituzten gasak diren horretan, ideia ona iruditu zaigu ekologiarik bultzada bat ematea kotxe elektrikoaren erabilera sustatuz. Hori dela eta sortu zen gure proiektua.

Gure enpresaren xedea kotxe elektrikoaren jabeen beren autoak kargatzeko erraztasunak eman ez ezik, jendea kotxe elektrikoak erabiltzea bultzatzea da, era honetan ekologikoki eta ingurunearekiko erantzukizunez jardunez. Horretarako kotxeak kargatzeko era berritzaile bat sortu dugu: parking publikoetan zenbait kargadore ipiniko ditugu, eta bi tarifa eskeinitako dira, batetik aparkaleku finkoa nahi dutenentzat eta bestetik aparkaleku finkoa nahi ez dutenentzat. Azken hauek zerbait egiten ari diren bitartean kotxea aparkatua dagoen aldi berean kargatzen egongo da. Berriz kotxera bueltatzean egondako denbora kopuruaren arabera ordainduko du zerbitzua (OTA moduan).

Honekin batera, parking publikoetan bezala, bakoitzaren garaje pribatuetan instalatzeko aukera ere egongo da. Modu honetan, kontsumitzaile bakoitzari askatasuna ematen dio bere bizileku propioan kotxe elektrikoaren modu eroso batean kargatu ahal izateko.